

Proiektuaren deskribapena

Gure proiektuak "Skilltruke" izango du izena. Hau aplikazio bat izango da, non bideoak igotzeko aukera izango duen edonork; zerbait erakusten, beren gaitasunen arabera. Adibidez, instrumentu bat jotzen, ikasgaiaren bat erakusten... Trukean, diruaren ordean, aplikaziorako "puntuak" jasoko ditu, eta hauekin, beste zerbait ikasteko aukera izango du, beste jendearen bideoak "erosiz". "Puntuak" zerbait erakustean soilik lor daitezke, beraz, ezer erakusten ez dutenek, ezin izango dute zerbait ikasteko aukerarik izan.

Horretaz gain, aplikazioko kontua sortzean, beharrezkoa izango da datu pertsonal egiazkoak jartzea, izan ere, erabiltzaileak adinaren eta bizilekuaren arabera "klasifikatuko" ditugu, bakoitzari moldatutako eskaintza bat bermatzeko. Hala ere, datu hauek uneoro pribatua mantenduko dira, erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko.